



VII. Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak

Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazio-Zentroa

2014ko urriaren 29an eta 30ean. Artium Museoa
Informazio-zerbitzuen lidergoa XXI. mendean

**Complutenseko Bilduma Digitala: byteetatik
zerbitzuetara**

Hitzaldia: Javier Pérez Iglesias

UCMko Arte Ederren Fakultateko Liburutegiaren zuzendaria

Complutenseko Bilduma Digitala: byteetatik zerbitzuetara. Liburutegi-harrotasunari eta -aurreiritziei buruzko koda batekin

Laburpena

Txosten honek Madrilgo Universidad Complutenseko Liburutegiaren (BUC) digitalizazio-politiken panoramika bat eskaintzen du. Jarduera hau joan den mendeko laurogeita hamarretan garatu zen, eta estrategikoa da BUCen Zuzendaritzarako. Complutenseko bilduma digitalak Google proiektuari eta lehenagoko nahiz aldi bereko beste digitalizazio-proiektu batzuei esker hazi dira (Dioscórides; PCEko Artxiboak; Lafuente-Ferrari Bilduma; Arte Ederren Fakultateko Antzinako Marrazkiak; Rubén Darío Artxiboa, etab.).

Google-en digitalizazio masiboaren proiektuaren ondoren, gauzak erabat aldatu zirela esan liteke. BUCek parte hartu zuen aliantza horretan, eta esperientzia garrantzitsua izan zen antolamenduaren mailan (zerbitzu zentralako zenbait unitate eta zenbait zerbitzu-puntu inplikatzeko baitzituen), eta munduko liburutegi handiekin jarri du erakundea harremanetan.

Ezin gara bilduma digitalez mintzatu Open Access eta E-Prints Artxibo Complutense Instituzionala aipatu gabe. Bilduma digital guztiak Open Access-ekin bat etortzea da helburua.

BUCek nazioarteko proiektuetan parte hartu du, besteak beste Europeana Libraries izenekoan, eta HathiTrust eta The European Library erakundeetan parte da gaur egun. Esperientzia horiek bide berriak ireki dituzte bilduma digitalen erabilerari eta babesari dagokienez. Europeana Libraries-en edukiak txertatzeko egin behar izan diren egokitzapen teknikoak berrikusiko dira, eta orobat berrikusiko da zer suposatzen duen horrek metadatuaren kalitateari eta interoperabilitatearen hobekuntzari dagokienez.

BUCek dauzkan hogeita hamarretik gora zerbitzu-puntuetakoa bat da Madrilgo Universidad Complutense delakoaren Arte Ederren Fakultatearen Liburutegia. Amaitzeko, Liburutegi horretan abian jarri diren lan-ildo berriak aztertu dira, eta, ondoren, zerbitzu berrien ezarpena eta, gure erabiltzaileek Liburutegia gehiago baliatu dezaten, 2.0 teknologien erabilera.

Atarikoak. Nolako zura halako ezpala

Madrilgo Universidad Complutense-ren (UCM) digitalizazio-politikak aztertu aurretik, interesgarria litzateke zenbait zertzelada eskaintzea azaltzera goazen lana gauzatuko den erakundeari buruz.

UCM unibertsitate handia da, bi campusetan banatutakoa eta hiriaren erdigunean hainbat eraikin dituena. Hori guztia ez ezik, 500 urteko historia luzearen emaitza ere bada, ondare aberats eta zabala metatzera eramán duena.

Gisa honetako erakunde baten premiei erantzuteko, Madrilgo Universidad Complutenseko Liburutegiak (BUC) egitura koordinatua eta banatua dauka. Zuzendaritza bakarra du, eta komunitate akademiko osoari arreta eskaintzeko prestatutako Zerbitzu Zentralak. Bestalde, zuzeneko produktu eta baliabideak eskaintzen ditu Fakultate guztietan irekitako zerbitzu-puntuetatik.

405 pertsonak osatzen dute BUCeko langile-taldea, eta 30 zerbitzu- puntutik gora ditu, 5.805 irakasle eta ikertzaile, 84.985 ikasle eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko (AZP) 3.887 kideri arreta eskaintzeko.

Kopuru horiek aintzat hartuta, hiri moduko bat da UCM, bi metro- geraleku, hainbat autobus-linea, ezin konta ahala eraikin eta berdegune, eta harrotu bai, baina tarteka kezkatu ere egiten gaituen higigarri eta higiezinaren ondare historikoak biltzen dituena.

Ondare-bilduma bibliografikoak liburutegi-esparruan duen garrantzia dela tarteko, unitate berezi bat sortu zen, berori jaso eta zaintzeko. Madrilen erdi-erdian, Noviciado kalean, dagoen UCMren Liburutegi Historikoaren helburua, Sánchez Mariana aurreneko zuzendariak adierazi zuen bezala (2007), «Unibertsitatearen ondare bibliografiko historikoa kontserbatu, eta helburu zientifikoekin erabiliko dela bermatzea» da.

Gordetako funtsen balioa hain da handia, non berehala piztu baitzen funtsak digitalizatzeko interesa, kontserbatu eta Espainiako Estatuaren testuinguruan hedatzeko helburuarekin. 1995. urtean Dioscórides proiektua jarri zen martxan, arlo biomedikoko bilduma historikoak digitalizatzeko helburuarekin. UCMren, Ciencias de la Salud Fundazioaren eta Glaxo-Wellcome Laborategien artean sinatutako hitzarmenetik sortutako digitalizazioa zen. Arreta handia eskaini zitzaion digitalizatutako obretako grabatuen (gaur egun, 47.000tik gora) deskribapena indibidualizatzeari.

Geroago aipatuko ditugun beste digitalizazio-lan batzuk, berriz, hainbat finantzaketa-bideri esker gauzatu dira, baina esan genezake Google-ekin egindako digitalizazio-proiektuarekin gauzak erabat aldatu zirela.

Ur handiak. Xehetasunetik masibotasunera

2006. urtean UCMk eta Google-ek hitzarmen bat sinatu zuten, eta horri esker, digitalizazio masiboko proiektu batean sartu zen gure Liburutegia. Hala, digitalizazioarekin eta ingurune horretan eman daitezkeen zerbitzuekin zerikusia duten gaiei begira abangoardian dauden mundu osoko liburutegiekin harremanetan jarri ginen. Horren ondorioz, Estatu Batuetan, Michigan, Kalifornia, Harvard eta Stanfordeko unibertsitate-liburutegiekin eta New York Public Library- rekin partekatzen du proiektu

bat BUCek; European, berriz, harremanetan dago Oxfordekin, Bavarian State Library-rekin, Kataluniako Liburutegi Nazionalarekin, eta besteak beste, Florentzia, Erroma, Txekiar Errepublika, Austria eta Holandako liburutegi nazionalekin; eta Asian, Japoniako Keio University-ko liburutegiarekin.

Alabaina, nazioartean egindako tokitxoak eta bilduma digitalen gorakada nabarmena bezain garrantzitsua izan da erakundearen barnean sortu den ezagutza eta talde-lanaren zein informatika-garapen propioen hobekuntza.

XIX. mendeko funtsen katalogazioa eguneratzea izan zen, hain justu, proiektuak ekarritako lehen onura. Bildumaren zati hori ez zegoen katalogo automatizatuan oso-oso txertatuta, eta haren tratamendu teknikoa, kasu batzuetan, eskasa zen, metadatuaren kalitate txikiagatik. Lanerako plan bat sortu zen, eta horrek katalogazioa osatu (2007 eta 2008 artean 70.000 dokumentu katalogatu ziren) eta metadatuak hobetzea ekarri zuen, gerora hedatzeko eta bilduma digitalak erabiltzeko.

Paraleloki, kaltetutako liburuen kontserbazio- eta zaharberritze-plan bat finkatu zen. Hala, digitalizazio-zentralera bidali edo ez erabakitzeke, funts gehienak berraztertu ziren; eta aleen egoera, euskarria eta koadernaketa aztertu ziren. Kasu batzuetan, obra digitalizatzeko interesa handia zenean, eta jatorrizko koadernaketarik ez bazuen edo hondatuta bazegoen, koadernaketak egin ziren.

Bada beste ondorio onuragarrikerik ere; esan nahi baita, gordailuen baldintzak eta horietarako sarbideak sakon ezagutu ahal izan zirela, ezinbestekoa baitzen informazio hori dokumentuak bildu eta banatzeko. UCMren tamaina aintzat hartuta, eta unibertsitate honen sakabanatze mailari erreparatuta, arestian aipatu dugunez, era honetako informazioa beharrezkoa da oso, baina ez da beti modu globalean lortzen.

Lidergoan oinarritutako ikuspegiari eta liburutegiko langile-taldearen ahaleginari esker, BUC gauza izan zen digitalizaziorako egokiak ziren bilduma batzuk eskaintzeko. Google-ek, berriz, beharrezkoak ziren tresnak eta teknikariak jarri zituen; eta UCMk, azkenik, digitaliza zitezkeen materialak, batetik, eta, bestetik, dokumentuak aukeratu eta antolatzeke gaitasuna zuten langileak jarri zituen.

Google/UCM proiektuak gaitzesleak izan ditu, eta baditu oraindik ere, digitalizazioetako batzuk kalitate eskasekoak izatea egozten diotenak. Edukietarako sarbidean ere monopolio-arriskua dagoela adierazten dute. Batzuentzat Google-en jarduerak egile eta editoreen eskubideak urratzea ekar lezake. Beste batzuen ustez, ordea, ekintza zital bat da, kultura-ondare publikoa enpresa komertzial bati eskualdatzean datzana.

UCMk, haatik, milioika libururen edukia digitalizatuta, ezagutza demokratizatzeko aukera bakartzat jo zuen. Google-ekin egindako elkarte honi esker, doako tresna sortu ahal izan da, liburuen edukia kontsultatzeko zein deskargatu eta irakurtzeko aukera ematen duena.

Era berean, gisa honetako esperientziak digitalizazio masibokobestelako proiektu publiko zein pribatu batzuk bultzatuko zituela pentsatuta jardun zuen UCMk. Are gehiago, arrakasta ere izan duela aintzat hartzen badugu. Ez dezagun ahantzi, bestalde,

Google-ek digitalizatutako guztiaren kopia bat badauka ere, erakunde parte-hartzaileak beste banarekin geratu direla.

UCMk proiektuaren kudeaketarako web-aplikazio bat landu zuen, egindako eragiketen estatistika-datuekin batera, liburuen eguneroko mugimendu guztiei, Google-era egindako bidalketa guztiei, itzulketei eta bestelakoei buruzko datuak sarean eskaintzen zituen. Aplikazio horrek, halaber, digitalizazio-proiektuaren barneko liburuen metadatuak biltzen eta gordetzen zituen.

Google-ekin hitzartutako irizpideen arabera aukeratutako 150.000 liburuetatik, 120.000 digitalizatu ziren (205 Arte Ederren Liburutegikoak dira).

Digitalizatutako bildumak «Google books»-en bidez edo Google-ek Universidad Complutensearentzat eskusiboki sortu duen interfaze batekin kontsulta daitezke. Eskuragarri daude gure CISNE katalogoaren bitartez ere.

Gogoz geratu ginen. Bigarren fasea

Gaur egun, Google-ekin batera, digitalizazioaren bigarren fasea gauzatzen ari gara. Bertan, 1930. urtean edo aurretik hil diren egileen eta 1870. urtetik 1985era bitartean argitaratutako liburuekin, edo lege, lege-bilduma edo Administrazioaren argitalpen ofizialekin lan egin da. Bada abantaila bat; hain justu, 1870 eta 1873 artean argitaratutako liburuak jabari publikokoak direla.

Obrak aukeratzean, honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

1. Egile-eskubideekin gatazkarik ez izatea.
2. Kopia desagerraraztea.
3. Aileen kontserbazio-egoera (koadernaketa, orri eta paperen gorputza, berdindu gabeko orriak...).
4. Dimentsioak: gehienez ere, 45,7 cm garai, 31,7 cm zabal eta 12,7 cm lodi izan daitezke.

Fase honetan, 43.981 liburu zeuden digitalizatzeko moduan. 2013ko uztailetik 2014ko uztaile bitarte, 19.448 ale bidali dira Google-ek Munichen duen Digitalizazio Zentrorara. Horietatik 343 itzuli egin dituzte, hainbat arrazoi direla tarteko; hala nola hondatuta zeudelako, berdindu gabeko orriak zituztelako, etab. Orotara, 19.014 digitalizatu dira.

Lehenengo hautapenetik 19.117 liburu bidalketatik kanpo geratu ziren. Gehientsuenak kopia ziren, baina egile-eskubideekin arazoak zeudelako ere baztertu ziren batzuk, eta baita beste gutxi batzuk kontserbazio-baldintzengatik ere.

Orain, 4.982 ale geratzen dira aukeratzeko, eta oraingoz, ez dago horretarako finkatutako datarik.

BUCetik ale gehien bidali dituzten sailak Geografia eta Historiako, Filologiako eta Zuzenbideko liburutegiak izan dira: hiruna mila dokumentu, hain justu. Alabaina, orotara, BUCeko 19 zerbitzu-puntuak parte hartu dute. Arte Ederretan, sailik txikienetako batean, esaterako, 136 liburu digitalizatu dira.

Sarbide Irekia. Konpromisoa eta ikusgaitasuna

UCMren bilduma digitaleko aleetako askok Open Accessarekin (OA) dute zerikusia. Ia mundu guztiak badakien bezala, baina ez dator gaizki errepikatzea, OAk ez du esan nahi web batean zerbait jartzea; baizik eta baldintza tekniko (OAI-PMH protokoloak) eta formal jakinak erabiltzea horretarako, edukiak (irudiak, testuak, datuak, etab.) modu librean kontsultatu eta banatu ahal izateko.

OA, Sarbide Irekia, zer den definitu beharko bagenu, nahikoa genuke **Berlingo Adierazpenak Zientzia Ezagutzarako Sarbide Libreari** buruz (2003) aldarrikatzen duena aipatzea.

(...) lan eruditubat eskura izateko eskubide doakoa, ezeztazina eta mundu osokoa da, eta orobat da berori kopiatzeko, erabiltzeko, banatzeko, transmititzeko eta publikoki erakusteko lizentzia; eta eratorpen-lanak egiteko eta banatzeko, zeinahi bitarteko digitaletan eta edozein helburu arduratsurekin. Hori guztia egiletzaren aitortza egokiari lotuta (komunitateko estandarrek, orain artean bezalaxe jarraituko dute argitaratutako obren erabilera arduratsu eta egokia eginarazteko mekanismoak hornitzen); eta erabilera pertsonalerako kopia inprimatu gutxi batzuk egiteko eskubidea bezalaxe.

Ugaria da OArri eta OAk komunikazio zientifiko eta akademikoan dakartzan aurrerabideei buruz eskura dagoen informazioa, baina BUCen web-orriko orrialde bat gomendatzen dizuet: **Ezagutza Zientifikorako Sarbide Irekia**. Bertan, argi eta garbi dago azalduta guztia, informazio interesgarriko estekekin.

E-Prints Artxibo Complutense Instituzionala da UCMk OAREN helburuak erdiesteko bide berdeari egindako ekarpena. Esan nahi baita, erakunde jakin bati, kasu honetan unibertsitateari, atxikitako ikertzaileen ekoizpen zientifiko guztia gordailu edo artxibo instituzionaletan gordetzeko apustua egiten duen bidea da, ekoizpen- lan hori zeinahi tokitan argitaratua izan dela ere. ROAREN (Registry of Open Access Repositories) ageri den moduan, 2004ko urriaren 25ean sortu zen E-Prints Complutense. Eta bere egitekoa UCMk baliozkotutako irakasle, ikertzaile eta ikerketa-taldeek jardueratik sortutako dokumentazio digitala kudeatzea da. Dokumentazio hori unibertsitatearen ekoizpen intelektualaren zati handi bat da. Eta hainbat bilduma eta kokagunetan barreiatuta zegoenez, eragin negatiboa zuen bere erabilera eta ezagutza orokorraren mailan. Artxibo instituzional honekin, ikerketa-lana zabaldu eta babestu nahi du liburutegiak, eta baita lan horren antolamendua, sarbidea eta banaketa hobetu ere.

E-Prints Complutensen gordetako dokumentu asko eta asko doktore- tesiak dira. Doktorego-ikasketak arautzen dituen **99/2011 Errege Dekretua** indarrean jarri arte, tesiaren egilearen baimena behar zuen unibertsitateak tesia gordailu instituzionalean gordetzeko. Aipatutako Errege Dekretuarekin, derrigorrezkoa da doktore-tesi guztiak OAREkin bat datorren gordailu batean uztea.

Gaur egun, E-Prints Artxibo Complutense Instituzionalak 13.209 dokumentu ditu; horietatik 7.255 doktore-tesiak dira. Arte Ederren Fakultatean edo Geografia eta Historiakoan aurkeztutako tesiez gainera, beste bi bilduma nabarmendu nahi nituzke, Artearen alorrean interes berezia izan dezaketenak: grabatuak (63, gehien- gehienak Piranesirenak) eta Lafuente-Ferrari bildumako argazkiak (1.161 objektu digital).

Gordailu instituzional guztiaren baitan, Arte Ederren Fakultateari, oraingoz, ehuneko txiki bat besterik ez dagokio; izan ere, 1.548 erregistro atxiki ditu.

UCMk **Ekoizpen Zientifiko eta Akademikorako Sarbide Irekirako Politika Instituzional** bat dauka, 2014ko maiatzaren 27ko Gobernu Kontseiluak onartutakoa. Politika hori abiapuntu hartuta, dokumentuen gordailua suspertu nahi da. BUCen barnean, Zeharkako lantalde bat eratu da, sail guztietarako ordezkariekin. Zentro batzuetan (Zuzenbidea, Ekonomikak, Matematikak, etab.) oso esperientzia pozgarriakditugu, gainerakoetara esportatu daitezkeenak. UCMko Liburutegiko Batzordeak berak, zeinak Fakultate guztietako Dekanordeak baititu kidetzat, azpibatzerde bat sortu du, OArek sustapenerako eta ikertzaileek euren lanak Gordailu Instituzionalean uztea bultzatzeko xede bereziarekin.

UCMren beste ekarpen bat, berriz, **Aldizkari Zientifiko Complutenseen Ataria** da. Atari hori sortzeko, OA inguruetan argitaratzea sustatzea proposatzen duen urrezko irizpideei jarraitu die. Atariak 77 aldizkari eta 36.000tik gora artikulua eskaintzen ditu. Izenburuen artean dago Arte Individuo y Sociedad (Artea, Banakoa eta Gizartea) Arte Ederren Fakultateko Adierazpen Plastikoaren Didaktika Sailean argitaratzen dena.

Bilduma digital guztiak ez daude gaur egun OAn, baina helburua da, epe ertainera, guztiak egotea E-Prints Artxibo Complutense Instituzionalean. Bai behintzat horien metadatuak, nahiz eta dokumentuak biltzen dituzten fitxategiak beste zerbitzari batean egon.

Jatorria zeinahi delarik ere. Beste Digital Complutense Bilduma batzuk

UCMk hainbat bilduma digital ditu, bakoitza UCMren digitalizazio- politikaren une jakin bati dagokio eta zeinek bere jatorria du. Oraingoz, ez dago sarbide bakar bat guztientzat.

Google-ek, E-Prints Artxibo Complutense Instituzionalak eta Aldizkari Zientifikoaren Atariak digitalizatutako liburuez gainera, BUCek honako hauek jartzen ditu erabiltzaileen eskura:

1. **Dioscórides Liburutegi Digitala**. Arestian esan dugun moduan, BUCen aitzindaria izan den digitalizazio-proiektua da. Arlo biomedikoarekin zerikusia duten Antzinako Funtseko 47.000 grabatu eta 3.000 liburu biltzen ditu.

2. **Rubén Darío Artxiboa**. Digitalizatutako, transkribatutako eta sailkatutako 2.363 dokumentu.

1956. urtean Francisca Sánchez andreak, zeina 1899az gero poetaren neskalaguna izan baitzen, Espainiako Hezkuntza Ministerioari emandako eta gerora Universidad Complutenseko Filologia Fakultatean gordetako dokumentuak biltzen ditu Rubén Darío Artxiboak.

Digitalizazioari esker, eta Rocío Oviedoren eta Luis Sáinz de Medranoren proiektuei esker (aurrenekoa egiten ari da, bigarrena bukatuta dago), jatorrizko dokumentuaren irudi fidela eskuratu ahal izan da. Orain artean, gure Digital Complutense Bildumaren bitartez, 2.363 dokumentu kontsulta daitezke. Guzti-guztiak transkribatu eta sailkatutakoak dira; eta hala, ikertzaile bakoitzaren interesen arabera, hainbat bidetatik bila daitezkeenak.

3. Espainiako Alderdi Komunistaren Artxibo Historikoa. PCEn (Espainiako Alderdi Komunista) Artxibo Historikoaren Gerra Zibilari buruzko argazki-funtsak 3.200 argazki eta 2.000 negatibo inguru biltzen ditu. Benetan interesgarriak dira, eta ez soilik daukaten kalitateagatik, baizik eta baita egile batzuek berez duten garrantziagatik ere: Mayo, Centellés, Alfonso, Torrents, Albero eta Segovia, Gerda Taro, Chim (Seymour) eta Robert Capa. Negatiboen bildumatik nabarmentzekoa da ia 1.300 irudik osatutako multzoa. Bilduma digital honetan, horietako 800 daude. Negatibo multzo hori bi arrazoiengatik nabarmentzen da. Batetik, egileak edo egileek argazkigintzan duten ikuspegiagatik: irudiak gertakarien lekukotza eta ideia errepublikanoekiko konpromiso gisa. Gehientsuenak irmotasun, indar eta hurbiltasun handikoak dira, askotan ikuslea negatiboek jasotzen dituzten gertakarietako protagonista bihurtzeraino. Eta, bigarrenik, multzoaren originaltasuna dela tarteko; izan ere, soil-soilik jatorrizko negatiboek osatutakoa da, eta hala, dokumentuaren sinesgarritasuna erabatekoa da.

Hainbat ataletan sailkatuta daude; hala nola: Madril, Valentzia, bonbardaketak, propaganda, Aragoiko Frontea, Ebroko Gudua, Brigada Motorizatu, Brigada Internazionalak, manifestazioak, etab.

4. Arte Ederretako Antzinako Marrazkien Bilduma. 285 marrazkik osatutako multzoa da, gehien-gehienak biluziak («akademikak»), eta denbora-tarte handi bat hartzen du: 1752. urtetik 1914ra, hain justu. Erabilitako teknikak ikatz-arkatza, grafitoa edo sangina dira; egile guztiak, berriz, Arte Ederren Eskolako ikasle ohiak dira. Horietako asko bekadun egon ziren Erroman: Juan Adán, Isidro Carnicero, José del Castillo, Mariano Salvador de Maella, etab. Emakume batek egindako bakarra dago; zehazki, 1884. urtean Pintura, Eskultura eta Grabatuen Eskola Berezian matrikulatuta zeuden sei ikasle emakumeetako batek, Marcelina Poncela y Ontoriak, egindakoa. Bilduma honi esker, bidaia bat egin ahal izango dugu XVIII. eta XIX. mendeko artista espainiar gailenen prestakuntza akademikoaren historian barna.

Ch-ch-ch-ch-Changes (Turn and face the strain). Digitala abiaburu hartuta sortutako zerbitzu berriak

Digitalizazioaren abantaila argienetako bat, hain zuzen, bildumak publiko zabalago bati eskaini ahal izatea da, eta aldi berean, originalak babestu ahal izatea, kontsulta askotarako ez baitira beharrezkoak.

Alabaina, gaur egun, digitalizazio masiboek emandako aurrerapausoari eta liburutegi elektronikoen ugaltzeari esker, agerikoak egin dira ikerketaren mugak handitzen dituzten eta dokumentuetara hurbiltzeko modu berriak ahalbidetzen dituzten zerbitzu berriak. Erabilera berri horien adibide bat ditugu Humanitate digitalak, digitalizatutako material eta ondareak ez ezik, bitarteko digitalean sortutako tresnak ere biltzen baitituzte.

Bestalde, diziplina humanistiko tradizionalak eta gizarte-zientziek berezkoak dituzten metodologiak tresna informatikoen erabilerarekin uztartzen dituzte.

UCMk parte hartzen duen eta hainbat liburutegi digitalekin zerikusia duten proiektu batzuk hartu nahi nituzke hizpide. Proiektu horiek helburu bikoitza dute: batetik, gure erabiltzaileei zerbitzu gehiago eta hobeak eskaintzea; eta, bestetik, aurrerapausoak ematea babes digitalerako politiketan.

«Elefante bat kulunkan»... Sendotasuna eta konfiantza

Universidad Complutensea **HathiTrust Digital Library** elkarteko bazkide egin zen 2010. urteko azaroan. Elkarte horretan daude bilduta lehen mailako 80tik gora liburutegi akademiko eta ikerketa- liburutegi; tartean, Library of Congress delakoa. HathiTrust osatzen duten liburutegiak elkarlanean ari dira liburutegi digital bat sortzeko asmoz, euren funts digitalizatuen babesa eta eskuragarritasuna epe luzera ziurtatzeko. 10 milioitik gora liburuki ditu, eta horietako ia 3 jabetza publikokoak dira. Universidad Complutenseko Liburutegiak 100.000tik gora liburu digitalizatu ditu, egile-eskubideetatik libre, BUC-Google proiektuari eta tokian digitalizatutako bestelako funts batzuei esker lortutakoak gehientsuenak.

Hathi hitzak 'elefantea' esan nahi du hindiz, eta mundu guztiak badakienez, sendotasunarekin, tamaina handiarekin, oroimen onarekin eta segurtasunarekin lotu izan dira elefanteak beti. Elefanteak, behin ezagutu eta harekin harremana izan ostean, konfiantza ematen du. Bai, behintzat, elefante asiarra eta etxekotua bada.

HathiTrust elkartean parte hartzeko dugun helburu nagusietako bat, zehazki, eskaintzen ditugun bildumen babesa bermatzea da.

Digitalizatu eta gordailuan utzitako materialen eduki intelektuala, eta, sarri askotan, baita itxura berdin-berdina ere gordetzeko konpromisoa dauka HathiTrust elkartek. Hauek dira material horiek:

- Edukiaren irudikapen digitalak (irudiak), jatorrizko itxurarekin.
- Edukiaren irudikapen testualak, OCR teknologien bitartez (posible denean!).

UCMren erabiltzaileek, HathiTrust elkarteko kideak diren heinean, euren posta elektronikoko gakoekin identifikatzeko aukera daukate, eta hala, hainbat aukera espezifikotara sartzekoa; esaterako:

- Bilduma orokorraren baitan azpimultzoak egitea, eta publikoak egitea.
- Digitalizatutako obretan bildutako metadatuak kontsultatzea.
- Obrak oso-osorik deskargatzea.

Erabiltzaileek edo liburutegiek eurek sortutako bildumak publikoak egin daitezke, eta horrek funtsen ikusgaitasuna bultzatuko du, eta horren ondorioz, zientzia ireki eta elkarlanean sortu.

Grand Tour. Europako esperientzia

Digitalizazioak mundu osoan eman dituen aurrerapausoak direla tarteko, European Digital Library Network (EDLnet) proiektua eratu zen 2008an, Europako Batzordeak bere eContentplus programaren baitan sortutakoa. Eta horren ondorioz sortu zen Europeana. Ikuspegi teknikotik, Europeana kultura-ondare europarraren ataria da. Hasieran, bi milioi objektu digital zituen, eta 2013an, 2.300 Liburutegi, Artxibo, Galeria eta Museo inguruk emandako 29 milioi dokumentu bildu zituen bere bilduman. 45 hizkuntzatan idatzitako dokumentu- sorta zabal batek osatutako bilduma da: liburuak, egunkariak, aldizkariak, gutunak, egunerokoak, artxibo-dokumentuak, koadroak, margoak, mapak, marrazkiak, argazkiak, musika, ahozko tradizio grabatua, irati-emanaldiak, filmak eta telebistako saioak.

Europeanak hazi eta hazi jarraitzen du, The European Libraryk (TEL) edo Europeana Libraries-ek zein pareko proiektuek emandako edukiari esker.

Hain zuzen, UCMk Europeana Libraries-en parte hartu zuen, bere bilduma digitala eskainita. 2012ko abenduan amaitu zen bi urteko iraupena izan zuen proiektu hau, eta Europako 19 unibertsitate- eta ikerketa-liburutegitako funts digital aberatsak txertatzea proposatu zen. The European Libraryk (TEL) koordinatu du lana, eta honako hauen babesa jaso du: LIBER (Ligue des Bibliothèques Européennes de Recherche), CENL (Conference of European National Librarians), CERL (Consortium of European Research Libraries) eta Europeana Foundation.

12 herrialdeetako ikerketa-liburutegi nagusi batzuetako eduki digitala biltzea izan da helburu nagusia. Iraupen luzeko sistemak eratu beharra ekarri du horrek, digitalizatutako eduki ugari biltegitatzeko eta indexatzeko gai direnak. Horietan, gero, testu osoko bilaketa egin ahal izango da.

Proiektu honek TELen edukiak aberastea ekarri du, eta horren ondorioz, baita Europeana Libraries-enak ere, bi-biek ikerketarako balio handiko bildumak baitituzte. Aldi berean, Europako bilduma eta liburutegi aberats horiek sustatu ahal izan dira.

Kalitatezko metadatuak eta elkarreragingarritasun handiagoa (Linked Open Data) lortzeko egindako elkarlana da, hain zuzen, esperientzia honek egindako ekarpen handienetako bat.¹

¹ Ez dugu alderdi hau landuko; izan ere, Topaketa honetan bertan bada beste txosten bat, Eva Méndezena hain zuzen, gai hori bereziki jorratuko duena.

Liburutegi-harrotasuna eta -aurrejuzkuak

Sare sozialen apologia-garaiotan, agerikoa da dagoeneko kontua ez dela mundu analogikoaren eta digitalaren arteko aukeraketa egitea. Aitzitik, bi aldeetan gaude, eta horren ondorioz, bi agertokietan sortzen dira arazoak. Irtenbideak ere bi munduetatik etorriko dira. Gure liburutegiak hibridoak dira, gizartea ere halakoxea delako. Teknologiarri esker, aukera dugu orain arte pentsaezina zen moduan komunikatzeko eta informazioa zabaltzeko. Teknikoki posible da, hemen eta orain, Internetarako konexio bidez, pertsona guztientzat eskuragarri dagoen zientziara heltzeko ametsa. Eta erabat lortu ez bada, bestelako agertoki ez-birtualetan erresistentziak daudelako da: politika publikoak, korporazio handien nagusitasun ekonomikoa, zerikusia duten eragile guztien egiazko konpromisoa, etab.

Zuhaitz digitalek ez ligukete eragotzi behar gure erabiltzaileen premiek osatzen duten basoa ikustea. Liburutegiek, espazio fisiko gisa, zentzua izaten jarraitzen dute. Eskatutakora eta oraintxe dauden eskaerei erantzuteko eskain dezakegunera egokitzen jakitea da gakoa. Beste kontu bat da jendeak pentsatzea eskaera horiek liburutegietan ase daitezkeela. Hori ere, baina, gure erantzukizuna da.

Informazio digitalak eta informazio hori zabaltzeko eta partekatzeko bidea eskaintzen duten teknologiek oso urrutira eraman gaituzte. Zerbitzu gehiago eskain diezaiekegu pertsona gehiagori, denbora gehiagoan. Denbora- eta geografia-mugak gainditu ditugu, baina gizarte bidezkoago baterako, elkarlanean gehiago oinarritzen den zientzia baterako eta egiazki inklusiboa den beste kultura baterako bidean aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoa da konfiantzan eta elkarlanean oinarritutako aliantzak eta konpromisoak sortzea. Nire aburuz, konfiantza hori sortzeko, funtsezkoak dira aurrez aurreko harremanak, non gorputzek esateko eta egiteko asko duten. Ziur nago liburutegiak, zeinak, analogiko zein digital izanda ere, ez baititugu jo nahi dokumentuen edukiontzia soiltzat, topagune eta ekoizpen-gune bihurtu daitezkeela. Tailerrak zein laborategiak izan daitezke, makerspace zein fablabak; alegia, arte- eta ezagutza-sorkuntzan parte hartzen duten eragileen arteko harreman berriak esperimenta eta saia daitezkeen guneak.

Hori hala izan dadin, liburutegiok zeregin bat izan dezagun hain premiazkoak diren gizarte- eta kultura-eraldaketa horietan, sortzen diren erresistentziak gainditu behar ditugu, eta nik azaldutako kasuan, nola administratibotik bertatik, hala akademiatik datoz. Azken hamarraldietan aurrerapen batzuk sumatu baditugu ere, nola bata hala bestea, oraindik ere, oso zurrinak dira (uzkurak ez esatearren) aldaketari dagokionez; eta hein handi batean, baita baztertzailak ere.

Iruditzen zait gure egitekoa, kultura- eta arte-tresna publikoak garen heinean, gure erakundeen porositatea sustatzea dela, eta unibertsitate zein liburutegi barnean, eta askotan, kanpoan ere badiharduten talde, mugimendu eta esperientziekin aliantzak sortzeko bidean aurrera egitea dela.

Ildo horretatik doaz, hain justu, UCMren Arte Ederren Fakultateko Liburutegiari buruzko ohar hauek. Zuekin batera liburutegiari buruzko gogoeta egiteko modu bat da, liburutegia proiektuak, ideiak eta sorkuntza-lanak biltzen dituen gune gisa ulertuta. Liburutegia, elkargune eta aurkikuntzen katalizatzaile gisa. Alegia, arreta edo zerbitzua eskaintzen dion komunitatearekin inplikazio maila handia duen eta geure erabiltzaile gatibuetatik

(komunitate akademikoa, kasu honetan) harago doan eta gizarte osoa aintzat hartzen duen komunitatearen ikuspegia daukan liburutegi bat.

Iruditzen zait gainditu egin behar dugula orain arte barru-barruraino onartu dugun rola; esan nahi baita, erabiltzaileen eta lortu, prozesatu eta kontserbatzen ditugun dokumentuen arteko harremana ez kutsatzearen, ikusezin bihurtzen garen profesionalona. Gure konpromisoak, beraz, harago joan behar du Robert Musilen Der Mann ohne Eigenschaften (Ezaugarririk gabeko gizona) eleberrian ageri den liburuzain harroak, jakin-minik ez izateaz harrotzen den hark, adierazten duenetik. Are gehiago, liburuzain hark dio ez duela zertan jakin-minik izan; bere egitekoa bildu, landu, katalogatu eta sailkatzea mugatzen dela. Horren parekoa litzateke, esaterako, osasunaren arloko profesional batek premisatzat hartzea bere lanbidean interesik ez izatea eta ez sentitzea pertsonen minik zein sentimendurik.

Egia da ezinezkoa dela liburutegietan dagoen guztia irakurtzea, baina konpromisoa hartu behar dugu jakin-minarekin, ezagutzarekin eta sortze-lanarekin. Ez gara metadatuak kudeatu eta oreka hotzari eusten dioten ikus-entzule neutralak. Dokumentuak erostea, katalogatzea eta sailkatzea jarduera politikoak dira, gauzak ezkutatu zein ikusgai egiten dituztenak. Gure esku-hartzeak mesede egingo die ikasketa- eta ikerketa-zereginei, ezagutzak zerikusia baitu sentimenduekin eta nahitasunekin ere.

Arte-sorkuntzarako zentroekin harremanetan gaudenez, kokagune abantailatsua daukagu. Pentsamendu artistikoa eduki behar dugu, librea eta kritikoa, liburutegi-jardunak zalantzan jartzeko. Eta horretan ahalegintzen gara lanean dihardudan liburutegian.

Arte Ederren Fakultateko Liburutegia

Arestian aipatu dugun moduan, egitura handi baten barneko zerbitzu- puntu bat gara: Madrilgo Universidad Complutenseko Liburutegia (BUC). Komunitate akademikoaren premiak asetzen ditu, eta gizarte- konpromisorako eta munduarekin elkarreaginean jarduteko grina dauka.

Bere garaian, koordinazio deszentralizatu baterako apustua egin zen, eta orain, fisikoki, gure erabiltzaileengandik oso hurbil egon gaitzke, eta hurbiltasun hori baliatzen dugu, euren premietara hobeto egokitzeko.

Arte Ederren Fakultateko Liburutegiak tradizio handia dauka. San Fernandoko Arte Ederren eskolaren oinordekoak gara. Horrek ondare aberatsa ekarri digu, baina hein batean baino ez dago digitalizatuta. Dagoeneko digitalizatuta dauden baina horretan ibiliagatik oraindik erakutsi ezin izan diren funtsen artean, nabarmentzekoa dugu irudi japoniarren bilduma 2.

Gure bildumen ezaugarriak eta gure erabiltzaileek bilduma horiei ematen dieten erabilera aintzat hartuta, topagunea izango den liburutegi baten aldeko apustua egiten dugu, eta aldi berean, gure bilduma digitalak eta sareko zerbitzuak hobetzen dihardugu. Hots, liburutegi fisikoa izaten jarraitzen dugu, paperezko euskarrian bildumetarako

sarbidea ematen duena, oraindik ere paperak zentzua baitu: fanzineak, artista-argitalpenak, foto-liburuak, ephemera, etab. Digitalaren aurrerapauso-garaiotan, gora egin dute bai dokumentu multzo horrek, bai Humanitate-arloan argitaratzen diren gauza ugari.

Baina, inolako zalantzarik gabe, langileak dira liburutegi hibrido eraginkor bat izaten jarraitzeko dugun aktibo nagusia. 9 pertsonako lantaldea gara, eta erabiltzaileei aurrez aurreko zein urruneko arreta eskaintzen diegu, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 21:00etara. Fakultatean, 149 irakasle eta ikertzaile ditugu eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko (AZP) 82 kide. Ikasleak, berriz, 2.385 dira: 624, graduako lehenengo mailakoak (391 Arte Ederretakoak, 72 Kontserbazio eta Zaharberritzekoak, eta 161 Diseinukoak).

Saiatzen gara Liburutegira datozenei tratu on eta eraginkorra eskaintzen. Gainera, ahalegintzen gara ahalik modu aktiboenean parte hartzen Fakultatearen egitekoetan, irakasle zein ikasleek unibertsitatetik kanpo gauzatzen dituzten jardueretan eta arte-bizimodua garatzen den hiriko beste espazio batzuetan.

Eta ni duela urtebete inguru, 2013. urteko urrian, hasi nintzen Liburutegiko zuzendari-lanetan. Eskerrak eman nahi nizkioke Angeles Vian aurreko zuzendariari, Fakultateari bere oinarrizko zerbitzuetako bat Liburutegia dela ikusarazi baitzion; alegia, ikasketa-, ikerketa- eta sorkuntza-lanetarako babesa aurkitzeko moduko tokia dela.

Gure lanean hobekuntzak nola txertatu pentsatzen aritu garenean, hainbat alderdiri erreparatu diogu; honako hauei, hain zuzen: pertsonak, espazioak, bildumak eta zerbitzuak.

2 Grabatu eta liburu japoniarren multzo honek bi obra mota biltzen ditu. Batetik, 1851. urtetik Meiji Aroaren (1868-1912) hasierara bitarteko ia 800 ukiyo-e grabatuk osatutako bilduma; liburu itxuran antolatuak daude, nahiz eta hasieran banakako grabatu gisa pentsatuak egon. Aktore, gerlari eta kabuki antzerkiaren eszenak irudikatzen dituzte. Hainbat artistaren obrak dira: esaterako, Utagawa Kunisada (Toyokuni III), Hiroshigue, Kuniyoshi, Yoshitoshi eta Yoshiiku-renak.

Eta, bestetik, 30 libururekin osatzen da bilduma, nola ukiyo-e hala beste eskola eta teknika batzuetakoak, XVII. mende amaieratik XIX. mendeko azken hamarraldietara artekoak. Era askotako gaiak lantzen dituzte, baina nabarmentzekoak dira marrazketa-metodoak (batzuk Hokusai Mangarenak), lore-liburuak, landareak, paisaiak, kimonoetarako diseinuak, urre koloreko azpialdearen gaineko gorteko eszenak, eta ukiyo-e gai tipikoko bat, baina ehunean egindako irudiekin.

Protagonistak eta izar gonbidatuak. Pertsonak

Arestian aipatu bezalaxe, bederatzi pertsona gabiltza liburutegian, lanbide-eskalaren arabera honela banatuta: profesional 1, laguntzaile 1 eta 7 teknikari laguntzaile (horietako 2 lan-kontratadunak eta gainerakoak funtzionarioak).

Gure lehen helburua (eta oraindik ere prozesu horretan gabiltza), aretoko lanaren eta «barne-lanetarako» bulegoen arteko komunikazio-bide gehiago sortzea da. Zehazki, ahal den neurrian, bereizketa horiek desagerrarazteko asmoa dugu. Liburutegiko jarduera guztien arteko harreman-gabeziak, hein batean, espazioen antolamenduari du zerikusia (gero ikusiko dugu hori), baina baita oinordetzan jaso dugun eta administrazio osoari eragiten dion hierarkia-egitura ere. Eta baita korporatibismora errazki jotzen duten jakintza profesionalak eratzeko moduari ere (hizkera propioak, gainerako pertsona guztientzat ulergaitzak; gure egitekoaren ikuspegi endogamikoak, etab.). Unibertsitatean, antolamendua bertikalegia da oraindik ere, eta hala, alferrik galtzen dira ezagutzak zein gaitasunak. Eta hori guztia justu orain ari da gertatzen, langile-taldearen batez besteko adina dela tarteko, asko direnean BUC osoan erretiroa hartzen ari diren pertsonak, eta hutsaren hurrengo ordezko langileen tasa. Gehiago eta alor askotan lan egitea dagokigu guztioi. BUCen sektorerik handiena laguntzaileen taldea da (arestian adierazi dugun moduan, nabarmena da hori Arte Ederren Liburutegian); eta horregatik, talde horri prestakuntza eskaini eta pizgarriak eman behar zaizkio, baldin eta behar bezala funtzionatzen jarraitu nahi badugu, eta ahal den neurrian, hobetzen.

Aurten, zereginen banaketa berrikusteari ekin diogu, eraginkortasun handiagoa lortze aldera. Badaude guztion artean banatu beharreko jarduerak, hala nola katalogazioa, informazio-alfabetatzearekin lotutako guztia, aretoko arreta, etab. Era berean, komunikazio-bideak ireki ditugu (aurrez aurreko bilerekin eta posta elektronikoa baliatuta), informazioa bizkorrago mugi dadin. Eta bide beretik, prestakuntza indartu dugu.

Pertsonen buruz ari garenean, ezin ditugu soilik hizpide izan liburutegian dabilzanak edo gabiltzanok (liburuzainak); irakasle, ikertzaile eta ikasle guztiak ere aintzat hartu behar ditugu, gure instalazio eta zerbitzuak erabiltzeaz gainera, aliatuak eta kolaboratzaileak baititugu. Pertsona horiek funtsezkoak dira gure bildumak gauzatzeko eta bildumen erabilera sustatzeko, baina baita espazioak birdiseinatze eta zerbitzuak berregituratzeko ere.

Nola liburutegiak antolatzen dituen jarduerak, hala eskaintzen ditugun zerbitzuek lotura hertsia dute irakaskuntza zein ikaskuntzarekin. Eta ez curriculum-esparruan txertatuta daudelako, baizik eta curriculum-a osatzen dutelako eta gure erabiltzaileen interesei erantzuten dietelako. Bisitan datozkigun pertsonak, informazio bila zein irakurtzera datozenak, ikasteko edo lanerako gunetzat hartzen gaituztenak, gure tailer eta hitzaldietara datozenak... gure aliatuak dira, hobetzen joan gaituztenak. Era berean, eta modu zuzenean, edukiz hornitzen gaituzte, programazioan modu aktiboan parte hartzen dute eta liburutegia sortzen dute. Betiere, beste erakunde batzuetatik datozen edo arte-zein kultura-mundukoak diren aliatu guztiak (gehientsuenak ikasle ohiak) ahaztu gabe.

Eta aipamen berezia merezi dute astearte eta ostegun goiz guztietan liburutegira datozen boluntarioek. David, Julio eta beste zenbait pertsona dira, ezintasun psikikoa

dute, eta euren zaintzaileekin, funtsak kokatzen eta txukuntzen laguntzen digute, baita mailegu- mahaian hainbat zeregin egiten ere.

Lankidetzaren hau 2013ko azaroan hasitakoa da, ENCO elkarteak hala eskatuta, eta ezintasun psikikoa duten gazteak oro har debekatuta dituzten baina adinagatik beraiei dagozkien toki publikoetara joan ahal izatea da helburua. Espazio publiko horietan sartu ahal izatea da lehen xedea, baina era berean, elkarreragina, rol bat jokatzeko aukera izan dezaten eta topaketak zein trukeak egitea ere nahi da. Horregatik, pertsona autista batek, Davidek, gauzak txukuntzeko duen interesa abiaburu hartuta, ENCOko haren zaintzaileek pentsatu zuten, beharbada, laguntza-jardueraren bat egin zezakeela liburutegian, eta proposamen hori egin ziguten.

Lehenik eta behin, bilera bat egin genuen irakurketa-gelan lanean diharduten pertsonekin, gaia zertan zen azaltzeko eta galdetzeko ea bideragarria zen David eta haren zaintzailea Liburutegian egotea. Behin erronka onartuta, hainbat lankidetzaren proposamen egin ziren. David ostegunero etortzen hasi zen. Hasieran, denbora-tarte laburrerako, liburuak sarbide libreko apaletan jartzen laguntzeko. Eta baita erabiltzaileen liburutegiko sarreraren dagoen informazio-mahai batean uzten duten guztia txukuntzeko eta bestelako zeregin txiki batzuk egiteko ere. Esate baterako, birziklatzeko papera puska txikitzen moztea, oharretarako; itzulitako liburuak makina magnetizatzailetik pasatzea; etab.

Gaur egun, ordu eta erdirako dator David Liburutegira, eta askotan, elkarteko beste pertsona batzuek laguntzen diote aipatutako jardueretan. Lankidetzaren honi esker, guztiok ikasi eta irabazten dugu, eta oso harro gaude. Oraindik ez dugu albistea zabaldu. Hauxe da kontaktatzen dugun lehenengo foroa, baina gure helburua da UCM barnean ezagutaraztea, beste liburutegi batzuek ere bide berari hel diezaioaten, eta lankidetzaren esperientzia hau handitu dadin.

«Arima azalean dago». Liburutegiaren espazioa

Oraingo eraikina altxatu zenean, aurreko mendearen 60ko hamarraldiaren amaieran, liburutegia orain dagoen tokian kokatzea pentsatu zen. Baina logikoa den moduan, orduan ez zegoen oraingo ikuspegi bera erabiltzaileen premiei eta eskaini daitezkeen zerbitzuei buruz. Horregatik, oraingo espazioak ez dira oso ongi egokitzen egin nahi dugun horretara, baina aldaketa- eta berregituratze-prozesuan gabiltza.

Hiru bulego ditugu, hasieran «barne-lanetarako» pentsatutakoak, eta euren artean lotura dutenak; elkarri lotutako irakurketa-gela eta gordailu bana ere baditugu, bulegoetatik banatuta daudenak.

«Barne-lanetarako» gune horiei ezin konta ahala erabilera ematea izan da egin ahal izan dugun aurreneko gauza. Nire bulegoa, tamaina aintzat hartuta, liburutegiak antolatzen dituen jarduerak egiteko edo Fakultateko pertsonak edo taldeek proposatzen dizkiguten beste batzuk egiteko baliatzen dugu. Hantxe egin ditugu, beraz, poesia- tailerrak, topaketak editoreekin, artista-argitalpenen Pop-Up azokak, ikasleei euren irteera profesionaleri buruzko orientazioa eskaintzeko hitzaldiak, elkarrizketak artearen soinuari

buruz, foto-liburuen maketen berrikuspenak, solasak arteari eta gaixotasunari buruz, tailerrak komikiari buruz eta beste hamaika ekintza.

Beste bulego batean liburuzainetako batek egiten du lan. Eta hura taldean lan egiteko gela gisa ari gara egokitzen. Lehendik ere beste erabilera batzuetarako baliatzen zen espazioa zen, eta duela gutxira arte «Mediateka» izena zeukan. Iruditzen zaigu dagoeneko ez duela zentzu handirik erabiltzaileentzat ordenagailu batzuk edo audio-zein bideo-erreproduzitzzaileak izateak, jakinda liburutegiak utzitako eramangarriekin, edo erabiltzaileek etxetik ekarritakoekin, obrak entzun zein ikus ditzaketela, lanak egin, komunikatu edo informazioa bilatu. Alabaina, Bolonia Planak goi mailako hezkuntzan ekarritako aldaketak direla tarteko, geroz eta gehiago eskatzen dira taldean lan egiteko espazioak. Gailu batzuk gorde egin ditugu (mikrofitxa- irakurgailu bat, telebista bat eta DVD-irakurgailu bat), eta aretoko gainerako guztia bi mahai handik eta informaziozko gaitasunetan informazio- eta prestakuntza-funtzioak betetzen dituen liburuzainaren lantokiak osatzen dute.

Irakurketa-gelan antolamendu-aldaketa txiki batzuk egin ditugu, beste modu bat sortzeko erabiltzaileekin elkarreraginean eta lanean jarduteko. Aldaketa nabarmenena, apika, mailegu-mahai zaharra, garai-garaia zena eta pantaila batez inguratua zegoena kendu, eta bi mahai luze eta baxu jartzea izan da, hurbiltasun handiagoa eskaintzeaz gainera, liburuzain zein erabiltzaileentzat erosoagoak baitira. Gelako altzariak aldatuz, espazio bat geratu zaigu libre, aproposa mahai bat ezartzeko, eta han liburutegian egiten diren jarduerak beren testuinguruan kokatzeko. Bertan ditugu erakusgai ikusarazi nahi ditugun funtsak.

Gordailu bat ere badugu, irakurketa-gelarekin lotuta dagoena. Bertan, oso erabilera txikia edo ia erabilerarik ez duten funtsak eta etengabe kontsultatzen direnak daude gordeta. Funts horietarako sarbidea berehalakoa da, gehienez ere bost minutu itxaron behar da. Sarbide libreko aretoan apal gehiago jartzeko espaziorik ez dagoenez, eta bildumak ez zatitzeko nahiak bultzatuta, zaila da asko erabiltzen diren funts guztiak sarbide librean jartzea. Nolanahi ere den, lehenasunezko gauza da hori, gure bildumen erabileraren hobekuntzak lotura hertsia baitu serendipiarekin eta browsingarekin. Alegia, gure begiradaren jo-puntua pixka bat gora edo behera eramanda, bila genbiltzan dokumentuaren alboan edo helburu dugun apaletik hurbil topatzen dugunarekin.

Horren ondorioz, gure helburua da, Fakultatean bertan, gordailuetarako beste espazioren bat aurkitzea. Han utziko genituzke sekula kontsultatu ez diren eta azken 5 urteetan maileguan utzi ez diren funtsak, eta hartara, oraingo gordailua irakurketa-gelarekin lotuko genuke. Azken hori egitea nahiko samurra da, leihoak, argiztapen ona eta gelari lotzeko duen atea handitzeko espazioa dauzkalako.

Bada beste proiektu bat, oraintxe lantzen hasi garena: irakurketa- gelaren eta orain artean «barne-lanetarakoak» deitzen ziren bulegoen arteko lotura egitea. Era horretan, liburutegiko espazio guztiak lotuta geratuko lirateke, eta batetik bestera joateko modua izango litzateke, erabilera-premien eta eskatutako isiltasun mailen arabera. Beirazko ate handi bat jarri nahi dugu, ikasketa- eta kontsulta-gela taldean lan egiteko gelan sor daitekeen zaratatik babesteko, nahiz eta bi espazioen arteko komunikazio bisualari eutsi.

Liburutegiak hall bat dauka, Fakultateko sarrera nagusiaren gainean dagoena, eta irakurketa-gelara eta gordailura daraman korridore bat ateratzen da handik. Alde batean, bulegoetako ateak daude; bestean, berriz, komunetarako sarbidea. Halla zabala eta argitsua da, eta bertan, bi mahai zahar daude, bankuekin. Ikasleek asko erabiltzen dituzte taldeko lanak eta bilera informalak egiteko edo irakurketa- gelatik kanpo egotea nahiago dutenek bakarkako lanak egiteko. Mahaien alboan dauden hormek entxufeak dituzte, eta eremu horretan wifia dago. Mahaietatik beste hall txiki bat ikusten da, XIX. mendeko biluzien koadro handiak zintzilik dituena. izenez bataiatu dugu. Photocall moduan erabiltzen dugun espazioa da, gure tailerretara, hitzaldietara, etab. datozen gonbidatuei argazkiak ateratzeko.

Mantegnaren fresko baten erreproduzio bat ere badago, XX. mendearen hasierakoa, hormetako batean. Jatorrizkoa desagertu egin zen Bigarren Mundu Gerrako bonbardaketetan. Freskoaren eta parean, Liburutegiko iragarki-taula dago, sarrerako korridorearen ezkerrean. Iragarki-taula hori da gure erakusleihoa Fakultateko gune horretatik pasatzen den jende askorentzat; izan ere, liburutegia dagoen lehen solairura doan eskaileratik ikusteko modukoa da. Lehen solairu horretan, liburutegiaz gainera, Marrazketa, Diseinu eta Didaktika Sailak eta Artearen Historia eta Soziologia Sail Atalak daude, baita hainbat ikasgela eta bulego ere. Horregatik, ahalegin handia egiten dugu kartelak prestatzeko. Beti saiatzen gara iragarki- taulak itxura erakargarria izan dezan.

Irakurketa-gelara sartzeko korridoreak armairu handi bat dauka, kristalezko ateduna, eta lau beira-arasa ere badaude. Arasak 1923an San Fernandoko Arte Ederren Eskolan inauguratutako liburutegitik ekarritakoak dira, eta erakusketa-espazio gisa erabiltzen ditugu. Badira urte batzuk hainbat erakusketa egiten direnak, hilean behin aldatuta, artista baten liburu edo argitalpenei, paperean egindako obrei edo Fakultatearekin harremana duten (ikasleak, irakasleak eta ikasle ohiak) edo parte hartzera gonbidatutako artisten hainbat proposamendi buruzkoak.

Liburutegiaren lehentasunetako bat, hain zuzen, espazio, altzari eta seinaleak nola berrantolatu pentsatzea da, eta horretarako gure erabiltzaileen laguntza behar genuke, eta baita Fakultateko ahalik eta talde gehienek esku hartzea ere.

Urrian zehar egingo diren Ongietorri Jardunaldiekin batera, iradokizunak jasotzeko kanpaina bat hasi dugu: «Luziak sofa bat nahi du liburutegirako. Zuk zer nahi duzu?». Urri osoan zehar, iradokizunak idatzi ahal izango dira Liburutegiko iragarki-taulan, espazioan, altzarietan, apainketan, etab. aldaketak proposatzeko.

Abenduan, bestalde, «Liburutegia (bir)pentsatzeko tailerra» egingo dugu. Basilean bizi den diseinatzaile espainiar gazte batek emango du: Ricardo Páramok. Tailerrean, seinaleetan, irudi korporatiboan, espazio-antolamenduan, altzarietan, etab. egin beharreko aldaketarako ildoak finkatuko dira. Tailer horretako ondorioetan, parte-hartzaileen iradokizunez gainera, aintzat hartuko dira urriko kanpainan zehar jasotako ideiak ere, eta ondorio horiek 2015eko urtarrilean jakinaraziko zaizkio Fakultate osoari.

Liburutegi-espazioaz ari garenean, ezin dugu ahaztu gure grinetakoa bat Liburutegiaren lurraldetik ateratzea dela. «Embedded librarians»- en pare, ikasgeletara, tailerretara eta bulegoetara jotzen dugu hala eskatzen digutenean, eskoletan edo ikerketa-taldeekin zuzenean lan egiteko.

Batzuetan, gure erabiltzaileen jarduerak Fakultatetik eta Liburutegitik kanpo eramaten gaituzte.

«Badut, ez dut». Bildumak, eta nola erabili gehiago eta hobeto.

Liburutegiak 40.000 dokumentu inguru ditu. Dagoeneko adierazi dugu oso ondare-funts interesgarria dugula, baina, batik bat, gaur egungo arteari buruz dugun bildumaz gaude harro; eta aurrekontu- murrizketen eta prezio-hazkunderen aurka eginda, hazten joan dadin ahalegintzen gara.

Irakaskuntza- eta ikerketa-zereginak ekarri dute bildumaren garapenaren alderdirik handiena. Ikaskuntzarako beharrezkoa dena eta irakasleek euren ikasgaietarako oinarriko bibliografiatzat daukatena lehentasunetako bat da erosketak egitean. Eta gauza bera gertatzen da ikertzaileek behar dituzten dokumentuekin ere.

Zorionez, truke- eta dohaintza-sare ona dugu, eta horri esker osatzen dugu erosketetarako aurrekontua.

Open Access-en sortu eta banatzen duten guztiari adi egoten gara, gainera. Baina jakin badakigu guretzat, aurrerantzean ere, oso garrantzitsua izango dela paperezko argitalpena. Hala, hainbat sektore bihurtu dira lehentasunezko:

- Fakultateko pertsona eta ikasle ohiekin zerikusia duten ephemera guztiak: erakusketen esku-egitarauak, flyerak, liburuxkak, etab.
- Fakultateko zein inguruko artisten argitalpenak.
- Fakultateko akademiko zein ikertzaileen argitalpenak.

Gainera, komunitate akademikoaren interesak bultzatuta, erosketarako lehentasunezko sektoretzat ditugu artista-argitalpenak, eta oso arreta berezia eskaintzen diegu foto-liburuei.

Alabaina, bildumen erabilera hobea gehien bermatzen digutenak «erosketa komisariodunak» dira. Guk erosketa bat agintzen dugu edo erosketa-iradokizun bat onartzen dugu; betiere, onartzen edo proposatzen duenak bildumaren zati hori aktibatuko duen ekintzaren bat egingo duen konpromisoarekin. Gure blogerako (Por Arte de Blog) post bat izan liteke, edo hitzaldi bat, edo performance bat, erakusketa bat, bideo bat... dagokion pertsonak egokitzen jotzen duena.

Ana Garralónek aholkatutako erosketa bat egin dugu. Garralón espezialista da Haur eta Gazte Literaturan, eta Media Vaca argitaletxearen katalogoa erostea proposatu zigun. Liburu irudidunak direlako, diseinu zaindua dutelako eta daukaten edukiagatik interesatzen zaizkie gure erabiltzaileei. Horrez gainera, argitalpen- proiektu berezia da, eta interesgarria izan liteke nola artistentzat, hala diseinuko gradua ikasten dutenentzat. Ana Garralónek argitaletxeari buruzko artikulu bat idatzi zuen, blogean argitaratu genuena, eta ondoren, Vicente Ferrer Media Vacako editorearen eta hango irudigile baten (Javier Olivares) arteko topaketa gidatu zuen.

Eta azarorako Pradillo aretoarekin, zeina Madrilgo antzerki alternatiboaren erreferenteetako bat baita, hainbat jarduera dauzkagu. Baina hori master eta ikerketako ikasle ohi Alejandro Simónen komisariotzapean egindako «Antzerki eta Dantza Agiriak» eskuratu ostean egingo da. Liburutegian, bestalde, topaketa bat izango dugu bildumaren zuzendari Antonio Fernández Lerarekin eta argitaratu duten egileetako batzuekin. Liburutegiko korridoreko beira- arasetan erakusketa bat izango da. Bertan, Agiriak eta gure funtseko beste obra batzuk elkarrekin egongo dira, Play Dramaturgia kolektiboaren eskutik. Eta Fakultateak aterako gara, halaber, Pradillo aretoan bertan beste topaketa bat egiteko. Bertan, hango komunitateko pertsonen proiektuaren eta beronen ibilbidearen berri emango diete ikasleei.

Bildumak aktibatzeke beste eredu bat, bestalde, Liburutegiaren eta interesatzen zaizkigun argitaletxeen artean hainbat jarduera antolatzean datza. Horixe egin dugu, hain justu, arte-liburuetan espezializatuta dagoen Consonni argitaletxearekin. Bertako egile Elsie Ansareoren tailer bat eta haren lanen erakusketa bat antolatu ditugu, eta besteak beste Blogeko argitalpen bat biltzen duen haren argitalpen-ildoaren aurkezpen bat, Fakultatean.

Oraintxe bertan, Libros del Zorro Rojo argitaletxearekin ari gara hizketan, erosi berri ditugun haren funtsetako liburuei buruzko jarduera batzuk antolatzeko.

«Irakurketa aktibatuak», bestalde, egileekin egiten ditugun topaketak dira, gure erabiltzaileen proposamenez antolatutakoak. Gehientsuenetan, Fakultateko talde edo kolektiboek antolatutako jarduerekin izaten dute zerikusia. Aurreko ikasturtean, Jaime Cuencarekin izan genuen hitzordua, *Peter Pan disecado: mutaciones políticas de la edad (Peter Pan disekatua: adinaren mutazio politikoak)* liburua tarteko. Jarduera hori, zehazki, Unibertsitate Hedapeneko Dekanordetzak antolatutako «Hautzaroa deskapitalizatu» ikastaroaren baitan egin zen.

Berriki, erorsketa-ildo berri bat inauguratu dugu: «Soinua artean». Fakultatean gauzatzen den Arranques jarduerarekin zerikusia du. Ikastaro guztiak laugarren edizioan dabilta. José Enrique Mateos irakaslea, Moelia arte-zerbitzuen enpresarekin lankidetzan, graduako lehen mailako ikasle talde batekin lanean ari da, euren sorkuntza- lanekin Unibertsitatekan kanpoko espazio batean erakusketa bat antolatzeko. Ikasgelako lana da Arranques. Ikasle parte-hartzaileek euren obra sortzen dute, ikasturtean zehar landutako gai bat abiapuntu hartuta. Gainera, erakusketa baten antolakuntzaren fase guztiak ezagutzeko aukera ere badute.

Azken edizio honetan, liburutegia izan da aukeratutako gaia. Euren obrak sortzeko mahai gainean jarri zaien proposamena bikoitza da. Alde batetik, arte materiagabeko piezak sor ditzakete (eta horiek liburutegia ideien eta ezagutzaren mundutzat jotzen dute), edo beste aldetik, mosaikoetan inspiratutako piezak (hainbat material biltzen dituzten bildumen multzotzat ulertzen da liburutegia).

Liburutegian, hainbat frontetan jardun dugu lankidetzan Arranques-ekin. Lehenik eta behin, erakusketa-espazio bat bilatzen parte hartu dugu. Azkenean, Tipos Infames liburu-denda aukeratu da, hiriaren erdigunean dagoena, Malasaña auzoan. Bestalde, artearen soinuarekin zerikusia duten materialak erosteari ekin diogu. Bilduma hori hiru urteko epean osatuko da, eta horietan, Arranques-ek lan-ildo berari eutsiko dio. Azkenik, ikasleen eta soinu-arteari buruzko bi artista/ikertzaileen (Alicia Grueso eta Bárbara

Sainza) arteko topaketa baten lekuko izan da liburutegia. Bi artistek, gainera, arte materiagabearen alderdi horrekin harremana duten liburu guztiak bilatu zituzten gure bilduman; eta beste atal bat ere antolatu zen, sarbide libreko aretoan, berriki eskuratutakoen alboan, ikusgaitasun handiagoa ematearren haiei.

. Zerbitzuak

Gure komunitateari informaziozko gaitasunetan oinarritutako prestakuntza emateko laguntza eskaintzea izan da Liburutegiaren apustu nagusia. Liburutegian dagoeneko irekita zegoen ildo hori, baina ni zuzendaritzara iritsi nintzenean, 2013ko urrian, horixe izan zen dekanotaldeak egin zidan eskaerretako bat.

Hain zuzen, lehen-lehenik, irakasle eta ikertzaileentzako Jardunaldi bat antolatzeko eskatu zidaten, zientziaren ebaluazioa, argitalpen zientifikoak, ezagutzarako sarbide irekia eta pareko gaiak lantzeko. Azaroan egin genuen saioa, «Cocinamos la ciencia contigo» ('Zurekin zientziaren sukaldean') izenburupean. Ez zuen parte-hartze handirik izan, baina pertsona giltzarri batzuk han izan ziren. Esate baterako, Fakultatean eskaintzen diren lau masterretako zuzendariak: Ondarean Kontserbazio Masterra; Diseinu Masterra; Gizarte eta Kultura Erakundeetako Arte Hezkuntza Masterra; eta Artearen eta Sorkuntzaren Ikerketa Masterra. Horri esker, eskatu ziguten masterreko ikasleentzat eskola batzuk emateko, euren ikasgeletan; zehazki, hiru orduko saioak, bi egunetan.

Izenburu berarekin (Zurekin zientziaren sukaldean), ikaskuntza sorta bat osatu genuen. Bertan, liburutegiaren zerbitzuak aurkeztu genituen eta hitz egin genuen informazioaren bilakaeraz, aipuak egitearen garrantziaz, aipuak egiteko moduez, kudeatzaile bibliografikoen erabileraz, datu-base espezializatueta euren azterketa- edo ikerketa-arloei buruz galdetzeko moduez, Ezagutzarako Sarbide Irekiaz, etab.

Saio horien ondoren, ikasle askok egin zuten kudeatzaile bibliografikoak erabiltzen ikasteko ematen ditugun tailerretan parte hartzeko eskaera.

Doktorego-ikastaroetan izena emanda duten pertsona guztientzat ere saio espezifikoa bat eta tailerrak prestatu genituen, kudeatzaileen erabilerari eta datu-base espezializatueta bilaketa egiteari buruzkoak; betiere, eskaeren arabera antolatuta.

Gradu Amaierako Lana egin behar zuten ikasleentzat pentsatutako eskola batera gonbidatu gintuzten, eta horrek, Masterreko ikasleekin egindako saioetan hautemandakoarekin batera, bide berriak ireki dizkigu.

2014-2015 ikasterterako, aipuak egiteko moduari buruzko unitate espezifikoa bat eta egile-eskubideei eta Creative Commons-en lizentzien erabilerari buruzko beste bat landu nahi ditugu. Datorren hiru hilabeterako, halaber, entsegu zientifiko bat idazteko eta lan bat jendaurrean aurkezteko moduari buruzko tailer bana eskaini nahi ditugu. Ikaskuntza-topaketa hauetan guztietan irakasleen eta ikasleen arteko elkarreraginetik sortutako gaiak dira.

Beste batzuetan, graduako hainbat mailatako eskoletara joan gara, irakasleek hala egiteko eskatu digutenean, talde bakoitzaren premiei egokitutako edukiak lantzerako.

Fakultatean sartu diren pertsona berri guztiekin hasiera-eskolak egin ditugula da 2014-2015 ikasturte honetarako dugun berrikuntzetako bat; alegia, hiru graduetak edozeinetan sartu direnekin: Arte Ederrak, Diseinua eta Zaharberritzea. Ordu eta erdiko saioak dira, eta horietan, guztion eskura dauden informazio-bilaketa zein kudeaketarako tresna nagusien nondik norakoak azaldu ditugu. Helburua da adieraztea, euren ikaskuntzarako ez ezik, herritar gisa duten bizimodurako ere erabilgarria izan daitekeen zerbitzua dela liburutegia.

Eta egiaztatu ahal izan dugu Fakultatean sartu berri diren pertsonentzat ez dela erraza Liburutegira hurbiltzea. Batzuetan, asko eragiten die funtzionamendua ezagutzen ez duten zerbitzu batera sartzeak, eta sarri askotan, ez dute pentsatzen han intereseko ezer bilatuko dutenik.

Guretzat funtsezkoa da lehen mailako ikasle guztiei harrera egin eta aholkularitza eskaintzea; izan ere, horixe da modurik onena datozen urteetan erabiltzaile leialak izango ditugula ziurtatzeko. Bestalde, ziur gaude liburutegiak lagun diezaiekeela emaitza akademiko hobekak eta Fakultateari begirako asebetetze maila handiagoak lortzen.

Gainera, liburutegia ez da soilik baliagarria etapa akademikorako, baizik, eta ikaskuntza bera bezalaxe, bizitza osoan zehar izango da beharrezkoa. Ideia horrek esparru akademikotik haragoko jardueretan pentsatzera garamatza, eta baita unibertsitatetik kanpo diharduten pertsonekin lan egitera ere.

Gure lizentziadunek izango dituzten irteera profesionalekin konprometitzea interesatzen zaigu, eta babesa eman nahi diegu euren proiektu eta ekimenetan. Horretarako, «?» programa sortu dugu. Topaketak antolatzen ditugu euren negozioak ireki edo artearen zein kulturaren sektoreko enpresentzat lan egiten duten kulturaren arloko profesionalekin (batzuk ikasle ohiekin). Besteak beste, galeria-jabeak edo arte-galerietan lan egiten duten pertsonak, diseinatzaileak eta kultura-enpresa txikiekin edo pertsona autonomoekin lan egiten espezializatutako zerga-aholkulariak izan dira programan, euren esperientziak partekatzen eta ikasleekin hizketan. Bide beretik, arte-sorkuntza jakin batzuen ekoizpen eta aurkezpenarekin zerikusia duten tailerrak ere antolatzen ditugu. Esaterako, eleberrirako grafikoari eta editore zein bitartekariekiko (liburuzainak, liburu-saltzaileak, hezitzaileak...) harremanei buruzko tailer bat izan genuen. Baita haurrentzako informazio-liburu bat irudiztatzeari buruzko beste bat ere.

Programa honekin, bestalde, Universidad Complutensearen Gizarte Kontseiluak urtero babesten dituen «Irteera Profesionalen buruzko Informazio Saioren Zikloa» izeneko jardunaldietan parte hartu dugu. Fakultatean, Jardunaldiak «Arte Ederretako sarrera eta irteera profesionalak» izena izan zuen, eta Liburutegiak ireki zuen saioa, « programari buruzko aurkezpen batekin.

Ikasturte honetarako, jardunaldi batzuk antolatzea daukagu aurreikusita, euren ikerketa-tarteen aitorpenerako CNEAri eskaerak aurkeztu nahi dizkioten ikertzaileei laguntzeko. Helburua ez da soilik informazio-jardunaldi bat eskaintzea, baizik eta baita hezkuntza-pilulak sortzea ere, gure webean txertatu, eta noiznahi zeinahi irakasleri laguntzeko balioko dutenak.

Lehentasunezko beste ekintza-arlo bat, zehazki, gure Gordailu Instituzionalaren marketina eta ikertzaileen artean Open Access sustatzea izango da. Dagoeneko egin dugu tailerren bat azaltzeko zer-nolako abantailak dakartzan argitalpenak OAn gordetzeak, eta baita auto-artxibatze modua zein den azaltzeko ere.

Ikasturte-hasiera honetan, «» kanpaina egin dugu, jendea instalazioetara hurbil dadin eta gure hallean zerbait har dezan animatzeko. Han, komunerako sarbidearen alboan, ur hotz zein beroko iturri bat dago, infusioak egiteko tenperatura ezin hobean ateratzen dena. Geuk jarriko ditugu edalontziak eta te-, kamamila-, roiboos... poltsatxoak.

Konklusioa

Aipatu ditugun ekimen guztiek hedapena izaten dute sare sozialetan. Facebook eta Twitter erabiltzen ditugu (biak duela oso gutxi sortuak), gure erabiltzaileei informatzeko eta euren iradokizunak jasotzeko. Era berean, txat kooperatibo bat ere badugu BUCeko zerbitzu-puntu guztiekin, eta baita blog bat ere, Por Arte de Blog, egiten dugun guztiaren erakusleho-lanak egiten dituen.

Bilduma digitalak, ondarezkoak eta egungoak, geroz eta handiagoak, digitalizatzen eta komunitatearen eskura jartzen jarraituko dugu, baina gure bokazioa aurrez aurreko espazioetan sorkuntza- eta ikaskuntza- topaketak bideratzen jarraitzea da.

Fakultatean zerbitzu-puntu bat daukagun bitartean, komunitate akademikoarentzat toki baliagarria bilakatzea izango da gure helburua. Gure erabiltzaileek gure babesa izango dute informazioa bilatu eta kudeatzearekin lotutako guztian. Era berean, euren sorkuntza-prozesuetan lagunduko dieten dokumentu-bildumak eta espazioak eskainiko dizkiegu. Sareetan egon nahi dugu, une gehiagotan eta jende gehiagorekin egon ahal izateko, baina ez daukagu asmorik mundu analogikoa alde batera uzteko, ez behintzat gorputzek aliantzak sortzeko eta erantzunak bilatzeko baliagarri izaten jarraitzen duten artean.

Bibliografia:

Argitalpen zientifikoetarako sarbide irekia. [web-orria].
<https://biblioteca.ucm.es/openaccess> [2014/09/29an kontsultatua]

Espainiako Alderdi Komunistaren Artxibo Historikoa. [web-orria].
<http://biblioteca.ucm.es/atencion/17952.php> [2014/09/29an kontsultatua]

E-Prints Artxibo Complutense Instituzionala. [web-orria]. <http://E-prints.ucm.es/>
[2014/09/29an kontsultatua]

Rubén Darío Artxiboa. [web-orria]. <http://biblioteca.ucm.es/atencion/17651.php>
[2014/09/29an kontsultatua]

Arte, Individuo y Sociedad (Artea, Banakoa eta Gizartea). ISSN 1131- 5598. ISSN-e 1988-2408. Hemen eskuragarri: <http://revistas.ucm.es/index.php/ARIS> [2014/09/29an kontsultatua]

Dioscórides Liburutegi Digitala. [web-orria]. <http://biblioteca.ucm.es/atencion/24063.php> [2014/09/29an kontsultatua] Hemen eskuragarri: http://books.google.es/books?id=_mBbAAAACAAJ&dq=Ab%C3%A9c%C3%A9daire+ou+rudiment+d%27arch%C3%A9ologie.&hl=es&source=gbs_navlinks_s [2014/09/29an kontsultatua]

Arte Ederretako Antzinako Marrazkien Bilduma: [web-orria]. <http://biblioteca.ucm.es/atencion/15294.php> [2014/09/29an kontsultatua]

Cuenca, Jaime. 2013. *Peter Pan disecado: mutaciones políticas de la edad*. Consonni

Literatura zinetifikorako sarbide libreari buruzko Berlingo Adierazpena. 2003. Hemen eskuragarri: http://openaccess.mpg.de/67627/Berlin_sp.pdf [2014/09/29an kontsultatua]

HathiTrust Digital Library. [web-orria]. <http://biblioteca.ucm.es/atencion/50739.php> [2014/09/29an kontsultatua]

Liburutegi Complutenseak The European Library-ren erakusketa birtual berrian parte hartzen du: Ramón y Cajal eta Gregorio Marañónko doktore-tesiak Complutensetik aukeratutako 35 obren artean. (Prentsa Oharra). Hemen eskuragarri: <https://www.ucm.es/data/cont/media/www/pag-7545/La%20UCM%20participa%20en%20la%20nueva%20colecci%C3%B3n%20de%20The%20European%20Library.pdf> [2014/09/29an kontsultatua]

Musil, Robert (2004): *El hombre sin atributos* (Der Mann ohne Eigenschaften, Ezaugarririk gabeko gizona). Bartzelona: Seix y Barral.

Palafox, Manuela; Caballos, Almudena (2013): « Boletín ANABAD. LXIII. 3. zk. uztaila-iraila. Madril. ISSN: 0210-4164

UCMren ekoizpen zientifiko eta akademikorako Sarbide Irekiaren politika instituzionala: 2014ko maiatzaren 27ko Gobernu Kontseiluan onartua. Hemen eskuragarri: http://biblioteca.ucm.es/data/cont/docs/politica_acceso_abierto_2014 [2014/09/29an kontsultatua]

Aldizkari Zientifiko Complutenseen Ataria. [web-orria]. <http://revistas.ucm.es/> [2014/09/29 kontsultatua]

. In. Os-Repositorios 3. Jardunaldiak: . (Argitaratu gabe). Hemen eskuragarri: <http://E-prints.ucm.es/8488/> [2014/09/29an kontsultatua]

: , , 9. urtea, 80. zk., 48-52. orr. (1997). ISSN 0214-7491

Doktorego-ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretua. Hemen eskuragarri: <http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-2541> [2014/09/29an kontsultatua]

Sánchez Mariana, Manuel (2007): « , 472. or.